

Armadari ez!

GEXAN LANTZIRI



DUELA zenbait egun, iparraldeko hiru gaztek publikoki 'ezet' erran zioten frantses armadara joiteari. Txetx Etxeberri lehenago

urratu zuen bide arriskutsutik abiatu dira.

Gogo-bihotzak zinez sendo eta irautzalari behar ditu gazte batek, horrelako urratsa emateko. Estatuak legez finkatua eta Elizak praktikaz onetsia duten egitura armatuari ezetz borobila emateko. Eta hori, jasan beharko dituzten ondorio txar guzien gatik. Goraki eta ozenki txalotu nahi zaituztet hemendik, zuek eta hegoaldeko zuen idurikoak. Armadaren kontra izateko eskubide osoa daukazue. Oinarritzko giza eskubidea.

Armada batek izateko dukeen eskubide barkarra, herri zuzenen zaintzean dauka. Ingalaz ere ez. pertsonak eta Herriak menperatzean edo menperaturik edukitzean.

Euskal Herriaren kasuan, nolaz izan daiteke frantses edo espainol armadaren alde? Bata nola bestea, Euskal Herriaren etsaiki direlarik! Batak nola besteak Euskal Herria Pariseren eta Madrilen menpean atxikitzea dutelarik helburu! Batak nola besteak, mendez mendue, Euskal Herriaren bertan eta munduan zehar, milioika jende hil dutelarik! Bata nola bestea, gaur egun serbiar armadak Kroazian egiten ari duen suntsiketa Euskal-Herriaren egiteko prest direlarik, frantses-espainolek gerlaz ezarritako muga diren tokian atxikitzeke!

Oxala, euskal gazteria osoak bide hori har baleza! Bere eskubide osoan legoke. Eta aberzale bakezale guzientzuz sustengua hartze luke.

• TIME

Txantxetan, Dubrovnik sutan den bitartean

Eskerronik gabeko errotka arriskutsua izango da kanpotar ororentzat, berdin dio zenbait diren eta zein ondo armatuta dauden. Jugoslaviako tribu eta partisoanen gerretan eskua sartzea. Baina interbentzioa baztertu aurretik, Mendebaldeko mandatariek urte hasieran egindakoa gogoratu beharko lukete. munduko ordena berriari ezagututako lehen mehatxandiriari emandako erantzuna. Munduaren kondena, edo zigor ekonomikoa edo diplomatikoak, ez zuten bota Saddam Hussein Kuwait deritzogun Irak Handiko bazter horretatik. Nazioarteko indar militar masiboa beharrezkoa izan zen.

Egia, Saddamek nazioarteko muga bat bortxatu zuen, eta Jugoslaviako miseriak ustez «barnekoak» dira. Tira, egon zain...

STROBE TALBOTT

• EL MUNDO

Bake konferentziak

Modan daude bake konferentziak munduan zehar. Madriren eratu berri due juduen eta palestinarren arteko oso sonatuaren hasiera; kroata eta serbioen arteko Europarren eskuetan aingira bezala ihesi dabil, etsi

HEMEROTEKA

gabe halere; Kanbodian inoiz espero ez zen zerba itortzen ari dira. Hemen, berriz, «terrorismo»aren minbizirik gaiztoenari nondik heldu ez dakigula gaude euskaldunok, ezeregiteko gauza ez gara.

(...)

Egia esan, harriztekoa da hainbeste urteko gorroto eta hauen ondoko heriotzak ehundaka, eta oraindik ez gara odolhuste negargarri hau amaitzeko egitazko ahalaginak egiteko gauza izan. Gure herriko arazo hau ez da palestinarrek juduekin duten auzia baino zailagoa, eta hala ere eseri dira azkenean elkarrekin, eta aurrera doaz, eta lortu beharko dute nolabait elkarbizitza. honetara kondentatuta daude-eta alde bateko eta beste ko terroristak.

MARTIN UGALDE

• ARGIA

Gosearen hatzaparrak

Urtero 30 bat milioi pertsona hiltzen dira gosez munduan, horietatik erdia inguru haurrak, gainera. Afrika dugu record hitis honen buruan. Baina arazoa Hirugarren munduko herrialde gehientsuenetara hedatzen da, areago populuenetan. Gerrak, lehortea, jauntxkeriak eta beste arrazoi ugari azal liteke gosearen arazoa. Baina, arazoari garrantzitsuen, eta askotan gainontzekoen eragile, herrialde azpigaratuek garatuekiko du-



Kongresura sartu nahian zebilen ezezagun bat atxilotu dugu.

RICARDO & NACHO / EL MUNDO

ten menpekotasunean datza.

XABIER LETONA

• LA VANGUARDIA

Bi Europak

Bi Europa ari dira sortzen 1991ko azkenaldi honetako panorama atsekabetsua. Bata zalantzakorra eta dudamudakoa, herri komunitario askotan nolabaitko barne krisi garaian lortutako batasun politiko eta ekonomikoaren ertrak limitzen saiatzen da. Besteak —Marx, Stalin, Honecker, Tito eta azken berrogeiariar du hauekiko gainontzeko idaktadore

guztien izenean autoritarismoaren lozorro luzetik iratzarri den Europa— askatasunik ezaren ibilbide luze baten ondoren galdutako egonkortasuna lortu nahi du etsi etsian.

(...)

Araza gogor planteatuta dago. Gakoa Europa komunitarioa ustegabe bezain azkar martxan jarri den prozesu desestabilizatzailea geldiarazteko moduan ote dagoen ikustean dago. Dirudienez argi eta garbi dago ezin direla bereizi Maastricht eta Europako gainontzeko errealitatea.

LUIS FOIX

Durangitis

JOAN MARI TORREALDAI



HONELA ezagutzen da argitaratzaileen artean urte-sasoi honetako gaitza. Dena da urduritasuna, presa, ezin-iritisia. Eta iritsi-beharrak, abenduaren lehen astean Durangoko Liburu eta Disko azokan liburu berriekein presente egon beharra.

Editorialeen Durangitis honen ondorioak Durangoko Azokan agertzen dira gero. Aurten ere 200 bat liburu berri izango omen da han. Alegia, urteko produkzioaren lauti bat.

Onuragarria al da hau? Auskalo! Uste den baino gutxiago agian.

Egia da, liburuen aurkezpen publikoa egiteko aukera eskaintzen diola Durangok liburu aierberria eskuratzeko. Bai, nahi bada. Baina jendetzaren handiak blokeatu egon ohi du askotan Azoka, eta aukera gutxi egon ohi da hola koetan liburuak ikusi, aztertu, gozatu eta dastatzeko. Hau ere Durangitis da.

Egia da, baita ere, euskaltzaleari aukera parregabea eskaintzen diola Durangok liburu aierberria eskuratzeko. Bai, nahi bada. Baina jendetzaren handiak blokeatu egon ohi du askotan Azoka, eta aukera gutxi egon ohi da hola koetan liburuak ikusi, aztertu, gozatu eta dastatzeko. Hau ere Durangitis da.

Azken batean, bai Durangon eta bai bestetan, izar handientzat dira begi eta foko guztiak. Eta izar txikiagoek diren baino ere txikiago ez al dute ematen Durangoko Azokan?

ZUZENDARIARI

Athletic-Real: ez gaitetzen erori euren tranpan!!!

Idazki honen bidez, Atoxtan, Real-Athletic partidua zela eta, bi aldeetako jarraitzaileen artean emandako gertaerak, hitzuzko enfrontamendua, fisikoak izan ez zirenean, irainak, gauzen jaurtiketak, Athletic 2. mailara jaistzea eskatzen zuten abestiak ... barne, eragin didaten haserre azaldu nahi dut.

Orainaldia ulertzeko, beharrezkoa da iraganera jozte, bi aldeetako zaletuak arazo ezberdinengatik loturik zeudenean, herri berekoak, Euskal Herrikoa izatea nagusia izanik. Garai frankista horretan bide gutxi zeuden gure ezberdintasuna adierazteko, eta frankismoak futbola jendea lekoratu eta ixilarazteko erabili arren, Euskadin kontrako fenomeno eman zen, zeinean ikurrerri dardaraz, euskal abestiekin, euskal sentimendua adierazten zen.

Franco hil eta gero, guztiok gogoratzen ditugu, oraindik, Athletic eta Real-eko kapitainak ikurrerri eramaten, harmailetan giro erabat jatorra, jaiarena egonik. Zeintzuk dira

oraingo egoerara eraman gaituzten arazoak? Zelan heldu dira, lehiakidetasun zintzo eta adiskidetsuak lortzen zituen bi zalego, enfrontamendu eta gorrotora? Egoera limite hau ahalbideratu duten arazoak eta faktoreen inguruko nire iritzia gehitu nahi nuke:

a) Lehenik, azpiko gaia, gure Herriko sektore batzuk, zalego ezberdinen artean (eta ez klub-en artean soilik) bana-keta eta enfrontamendua sortzeko eragile saioak daude; sektore horiek, kasualitatez, inoiz ez direlarik nabarmendu Euskadirekiko maitasunagatik, eta are gutxiago, abertzalismoagatik. Zentzu horretan, Euskal Herriari ezarri zion estrategia ospetsua, praktikan jarri da futbolearen ere. Zenbait komunikabideen eginkizuna, buruga eta 'jarraitzaile' sektore batzuk izan dira helburu hori, astiro, baina sotiilik, lorzeko gilitza.

b) Gure ekipoak defendatzerakoan, 'forofismoa' eta arrazionaltasun falta endakartzeko honetan lagundu duen beste aspektu bat da, mendekua eta errebantxismoa bultzatu duelarik.

c) Prentsa, buruogin... artean egondako jokabide ilun eta eskasak, fitxaje aitopren, edo futbolarekin zerikusia

duten beste gaietan, haserre eta tentsio gehiago sortu dute.

Arazoak gehiago egon daitezke, baina garrantzitsuenak euskal jarraitzaileen arteko hurbilketa positibora eramango gaituen hausnarketa prozesua zabalzea dela uste dut.

Horregatik dei egiten dut, geure burua Athletic eta Real-aren jarraitzailetzat dugu guztiok zuzendua, beti, euskal jarraitzailearen ezaugarria izan dena praktikan frogatuko duten ekimen zehatzak gara ditzagun:

a) Bai harmailetan zein kanpoan, banaketa egoera bultzatzen dutien kontrako jarrera argu eta salatu.


b) Estatu espainolean eta Europako kopetan, Euskadiren izenean ari diren ekipoak animatu, beti eta batez ere.

c) Ez gara mendeku eta errebantxismoaren tranpan erori behar, euskal zalegoaren izpiritu zabal eta alaita berreskuratzeko.

Idazki hau hausnarketa eta debaterako abiapuntu izango delakoan agurtzen da Athletic eta beste euskal ekipo guztien jarraitzaile hau, Osasunari, bere europar esperientzian, zorte ona opatuz.

JOKIN ETXEBARRIA Bilbo

PERTSONAIA



Ardanza eta Alli

Ardanza eta Alli badatzo erdi lagun erdi anai haiek ezezik herria ere biltzea guk gurek nahi politikoak herri zain eta herria politiko zai zeruan trumoi handia bada lurrean oihartzun be bai gureak ere bildu dira ta ja egon gintezke lasai.

JON IÑAKI IZARZELAIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZAHARRRETA

INAKI URIA

Publikizatea:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Goidaui: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Arabak: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irritzidorra) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapuri / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11